

*OLERKIAK*

**FRIEDRICH HÖLDERLIN (1770-1843): OLERKIAK  
(ITZULTZAILE: LUIS AROSTEGI)**

**Die Launischen.**

Hör' ich ferne nur her, wenn ich für mich geklagt,  
Saitenspiel und Gesang, schweigt mir das Herz doch gleich;  
Bald auch bin ich verwandelt,  
Blinkst du, purpurner Wein! mich an

Unter Schatten des Walds, wo die gewaltige  
Mittagssonne mir sanft über dem Laube glänzt;  
Ruhig siz' ich dasselbst, wenn  
Zürnend schwerer Belaidigung

Ich im Felde geirrt - Zürnen zu gerne doch  
Deine Dichter, Natur! trauern und weinen leicht,  
Die Beglückten; wie Kinder,  
Die zu zärtlich die Mutter hält,

Sind sie mürrisch und voll herrischen Eigensinns;  
Wandeln still sie des Wegs, irret Geringes doch  
Bald sie wieder; sie reißen  
Aus dem Gleise sich sträubend dir.

Doch du rührest sie kaum, Liebende! freundlich an,  
Sind sie friedlich und fromm; fröhlich gehorchen sie;  
Du lenkst, Meisterin! sie mit  
Weichem Zügel, wohin du willst.

### **Alditsuak.**

Arrenkuraz nazanean, urrinetik bakarrik  
zurda-soinua eta abestia entzunda, bertan isiltzen jat biotza;  
baita laster naz aldatzen,  
zuk ardao purpurazkoak!, didiz dagistazunean be

basoko gerizpetan, an eguerdiko eguzki  
aaltsuak zorba gain samur distiraten deustala;  
lasai naz jesarten antxe,  
irain astunaz sumin

zelaian alderrai ibilita. Laster bai dira jarten asarre  
zure olerkariak, izadi!, naigabe eta negar-errez dira,  
zoritsuak; amak  
bigunegi azitako aurrak lez,

zakarrak dira eta jauntxo temati;  
bidean bare doazela, ezer gitxik  
ditu naastatzen laster barrero; bidetik  
urteten dabe zuri biurrituz.

Baina zuk, maitati!, adeitsu ozta ikutuaz,  
bakezko eta zintzo dira; pozik esaneko;  
zuk gidatzen dozuz, maistra,  
ede bigunez nai dozunera.

## Der Zeitgeist.

Zu lang schon waltest über dem Haupte mir  
 Du in der dunkeln Wolke, du Gott der Zeit!  
 Zu wild, zu bang ist's ringsum, und es  
 Trümmen und wankt ja, wohin ich blicke.

Ach! wie ein Knabe, seh' ich zu Boden oft,  
 Such' in der Höhle Rettung vor dir, und möcht'  
 Ich Blöder, eine Stelle finden,  
 Alleserschütt'rer! wo du nicht wärest.

Lass' endlich, Vater! offenen Aug's mich dir  
 Begegnen! hast denn du nicht zuerst den Geist  
 Mit deinem Stral aus mir gewekt? mich  
 Herrlich an's Leben gebracht, o Vater! -

Wohl keimt aus jungen Reben uns heil'ge Kraft;  
 In milder Luft begegnet den Sterblichen,  
 Und wenn sie still im Haine wandeln,  
 Heiternd ein Gott; doch allmächt'ger wekst du

Die reine Seele Jünglingen auf, und lehrst  
 Die Alten weise Künste; der Schlimme nur  
 Wird schlimmer, daß er bald' er ende,  
 Wenn du, Erschütterer! ihn ergreiffest.

## **Aldiko espiritua.**

Luzaroegi zabildez buru ganetik  
odei ilunean, aldiaren Jainko!  
Naastuegi, larriegi da ingurua, eta  
ondatuz doa eta aldarka edonora begiratzen dodala.

Ai!, mutiko batek lez, lurrera begiratzen dot sarri,  
zuloan bilatzen dot salbamena zukanik iges, eta  
ergel onek zu, guzti-dardarazle!, ez zengokezan  
leku bat aurkitu nai neuke.

Itzi azken baten, aita!, begiz begi  
aurki zaidazan! Ez dozu ba leenen zeuk gogo  
zeure dirdaiz niganik iratzarri?, ni  
andikiro bizira ekarri, oi aita! -

Ederto sortzen jaku aien gazteetatik indar sakratua;  
aize bigunean aurkitzen ditu ilkorrak,  
eta zugatzixuan bakez dabiltzala,  
Jainko batek gogo-argituz; baina aaltsuago deutsezu

arima gabia gazteei iratzarten, eta zaarrei  
arte zuurrak irakasten; gaiztoa bakarrik  
biurtzen da txarrago, arinago daiten amaitu,  
Zuk, dardarazleak!, oratu dagiozunean.

## Der Main.

Wohl manches Land der lebenden Erde möcht'  
 Ich sehn und öfters über die Berg' enteilt  
 Das Herz mir und die Wünsche wandern  
 Über das Meer, zu den Ufern, die mir

Vor andern, so ich kenne, gepriesen sind,  
 Doch lieb ist in der Ferne nicht Eines mir,  
 Wie jenes, wo die Göttersöhne  
 Schlafen, das trauernde Land der Griechen.

Ach! einmal dort an Suniums Küste möcht'  
 Ich landen, deine Säulen, Olympion!  
 Erfragen, dort, noch eh der Nordsturm  
 Hin in den Schutt der Athenertempel

Und ihrer Götterbilder auch dich begräbt;  
 Denn lang schon einsam stehst du, o Stolz der Welt  
 Die nicht mehr ist! - und o ihr schönen  
 Inseln Ioniens, wo die Lüfte

Vom Meere kühl an warme Gestade wehn,  
 Wenn unter kräft'ger Sonne die Traube reift,  
 Ach! wo ein goldner Herbst dem armen  
 Volk' in Gesänge die Seufzer wandelt.

Wenn die Betrübten izt ihr Limonenwald  
 Und ihr Granatbaum, purpurner Aepfel voll  
 Und süßer Wein und Pauk' und Zithar  
 Zum labyrinthischen Tanze ladet –

## Main.

Lurbira biziduneko ainbat lurralde nai neukez  
ikusi eta mendi ganetara dagist sarritan iges  
biotzak eta badoaz gurariak  
itsaso gaindi, niretzat besteen aurretik, nire jakinean,

goralduak diran ur-bazterretara,  
baina asaotan ez jat bat be,  
jainkoen semeak lo dagien a baizen maite,  
greziarren lurralde atsekabetua.

Ai!, an Sunio-ko itsas-bazterretan nai neuke bein  
lurreratu, zure zutabeei , Olinpion!,  
itaundu, an, ipar ekaitzak  
Atene-ko tenploen eta areen jainko irudien

errautsetan zu be eortzi zaizan baino leenago;  
luzaro zagoz-eta bakarrik, oi munduaren arrogarri,  
geiago ez dan munduarena!, - eta oi zuok Ionio-ko  
ugarte ederrok, or itsasoko aizeak

ozkirri datoz ezponda berora,  
eguzki indartsupean maatsa onduz,  
ai!, udagoien urrezkoak erri txiroari  
kanta deutsoz biurtzen antsiak.

Atsekabetuei orain euren limoidiak,  
eta euren granada-ondoak, purpurazko sagarrez beteak,  
eta ardao gozoak eta tanbolinak eta zitarak  
laberinto dantzara konbitea dagitsenean –

Zu euch vielleicht, ihr Inseln! geräth noch einst  
Ein heimathloser Sänger; denn wandern muß  
Von Fremden er zu Fremden und die  
Erde, die freie, sie muß ja leider!

Statt Vaterlands ihm dienen, so lang er lebt,  
Und wenn er stirbt - doch nimmer vergeh ich dich  
So fern ich wandre, schöner Main! und  
Deine Gestade, die vielbeglückten.

Gastfreundlich nahmst du Stolzer! bei dir mich auf  
Und heitertest das Auge dem Fremdlinge,  
Und still hingleitende Gesänge  
Lehrtest du mich und geräuschlos Leben.

O ruhig mit den Sternen, du Glücklicher!  
Wallst du von deinem Morgen zum Abend fort,  
Dem Bruder zu, dem Rhein; und dann mit  
Ihm in den Ocean freudig nieder!

Zuekana, ugarteok!, joango bearbada oindino bein  
aberribako abeslari bat; erbesterik erbeste  
ibili bearra dau-eta  
eta lurrak, askeak, zoritxarrez!,

aberri ordeko izan bear deutso, bizi dan arte,  
eta il daitenean; – baina ez zaiataz inoz aaztu  
ain urrin ibili arren, Main ederra!, eta  
zure urondoak, zori-zoritsuak.

Arrotz-maite onartu ninduzun, gailen orrek!,  
eta begia argitu zeuntsan arrotzari,  
eta kanta mana isurberak  
irakatsi zeustazan eta bizitza zaratabakoa.

Oi izarrakaz zoaz bare, zorioneko!,  
zeure goizetik arratsera,  
Rin anaiajana; eta gero  
aregaz pozez itsasora.



## Abendphantasie.

Vor seiner Hütte ruhig im Schatten sitzt  
 Der Pflüger, dem Genügsamen raucht sein Heerd.  
 Gastfreundlich tönt dem Wanderer im  
 Friedlichen Dorfe die Abendgloke.

Wohl kehren izt die Schiffer zum Hafen auch,  
 In fernen Städten, fröhlich verrauscht des Markts  
 Geschäft'ger Lärm; in stiller Laube  
 Glänzt das gesellige Mahl den Freunden.

Wohin denn ich? Es leben die Sterblichen  
 Von Lohn und Arbeit; wechselnd in Müh' und Ruh'  
 Ist alles freudig; warum schläft denn  
 Nimmer nur mir in der Brust der Stachel?

Am Abendhimmel blühet ein Frühling auf;  
 Unzählig blühen die Rosen und ruhig scheint  
 Die goldne Welt; o dorthin nimmt mich  
 Purpurne Wolken! und möge droben

In Licht und Luft zerrinnen mir Lieb' und Laid! –  
 Doch, wie verscheucht von thöriger Bitte, flieht  
 Der Zauber; dunkel wirds und einsam  
 Unter dem Himmel, wie immer, bin ich –

Komm du nun, sanfter Schlummer! zu viel begehrt  
 Das Herz; doch endlich, Jugend! verglühst du ja,  
 Du ruhelose, träumerische!  
 Friedlich und heiter ist dann das Alter.

## **Arratseko irudipena.**

Bere borda aurrean dago lasai gerizpetan  
goldaria, neurritsuarentzat ke-jario bere sutea.  
Arrotz-maite joten deutso bidaztiari  
baserri baketsuan arrats kanpaiak.

Ederto biurtzen dira orain portura ontzilariak be,  
urrineko urietan azoka barail zeregintsua  
pozik itzaliz gero; itzalpe narean  
dizdiz dagitse adiskideei maia alkargarriak.

Nora ni beraz? Lansari eta lanetik  
bizi dira ilkorrak; nekea eta atsedena aldizkatuz  
dana da gozatsu; zergaitik niri bakarrik  
ez jat sekula eztena bularrean ibitzen?

Arratseko zeruan loran da udabarria;  
kontaezin larrosa loran eta baretsu dager  
urrezko mundua; oi, artu nagizue orra  
purpurazko odeiok!, eta an goian baleikidaz

argitan eta aizetan maitasuna eta mina urtu!-  
Baina eskari zoroak uxatuta lez, iges dagi  
lilurak; ilunduz doa eta ni bakarrik  
nago, beti lez, zerupean.

Zatoz orain, lo samurra!, geiegi dau irrika  
biotzak; baina azken baten, gaztaro!, itzaltzen zara bai,  
artega, ameslari ori!,  
baketsu eta argia da gero zaartzaroa.

**Des Morgens.**

Vom Thau glänzt der Rasen; beweglicher  
Eilt schon die wache Quelle; die Buche neigt  
Ihr schwankes Haupt und im Geblättern  
Rauscht es und schimmert; und um die grauen

Gewölke streifen röthliche Flammen dort,  
Verkündende, sie wallen geräuschlos auf;  
Wie Fluthen am Gestade, woogen  
Höher und höher die Wandelbaren.

Komm nun, o komm, und eile mir nicht zu schnell,  
Du goldner Tag, zum Gipfel des Himmels fort!  
Denn offner fliegt, vertrauter dir mein  
Auge, du Freudiger! zu, so lang du

In deiner Schöne jugendlich blickst und noch  
Zu herrlich nicht, zu stolz mir geworden bist;  
Du möchtest immer eilen, könnt ich,  
Göttlicher Wanderer, mit dir! - doch lächelst

Des frohen Übermüthigen du, daß er  
Dir gleichen möchte; segne mir lieber dann  
Mein sterblich Thun und heitre wieder  
Gütiger! heute den stillen Pfad mir.

## Goizez.

Iruntzez dizditsu bedarra; azkarrago  
doa orain iturri ernaia; pagoak makurtu egiten dau  
bere buru malgua eta orritzan  
zuzmura da eta distira; eta odeimordo arre inguruan

sugar gorriskak dabiltz alderrai,  
iragarle, zarata barik jagiten;  
itsasgorak ezpondan lez, kulunkari doaz  
gorago ta gorago aldakorrak.

Zatoz orain, oi zatoz, eta ez zakidaz azkarregi,  
urrezko eguna, zeruko gorenera joan!  
Izan be zabalago doa egaz, ustetsuago zugana  
nire begia, pozgarri ori!, zuk

zeure ederraz gazte distiratzean eta oindino  
bikainegi, arroegi biurtu ez zaiatazan artean;  
arinago nai zeunke zuk beti, nik al banei,  
jainkozko ibiltari, zurekin! – baina irribarre dagizu

ausarti alaiaz, zure bardin  
izan gura leukela-ta; obe, beraz, bedeinka eidazu  
nire egite ilkorra eta argitu barriro,  
onbera!, gaur nire bide isila.